

## Proiektuaren deskribapena:

Horus Proiektua webgune bat da, non pertsona adituek edota unibertsitateko ikasleek (hau da, pertsona gazteak lan-munduan sartzeko asmoarekin), haien intereseko gaiei buruzko hausnarketa eta ikuspuntu kritiko edo pertsonalak eskegi ahalko dituzten. Hausnarketa horiek podcast edo bideo moduan argitaratu ahal dira, eta iraupen luzekoak izango dira (ordu batekoak), geroago klip motzagoak egiteko aukerarekin. Modu berean, ikusleek haiei buruzko komentario eta erreakzioak eskeintzeko ahalmena dute, beti ere gutxieneko errespetu maila bat mantenduz.

Bestalde, proiektu honen beste alderdi garrantzitsu bat hitzaldiak izango dira. Adituekin eta ikasleekin harremanetan jarriz, hitzaldiak ematea eskainiko genieke, hitzaldi horiek ikastetxeetan edo institutoetan emanez. Entzuleen parte hartze aktiboa sustatzea bilatuko da, haiei galderak eginez eta haien ideia propioak emateko aukera emanez. Hitzaldi hauek oso inportanteak izango dira gure helburuak betetzeko: jarrera kritikoa eta kultura gazteen artean bermatzea.

